

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko maiatzaren 12tik maiatzaren 17rako astea**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/05/13

- Ebazpena, 2020ko martxoaren 10ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, haurrentzako laguntza eta hezkuntza zentroen sektoreko estatuko XII. hitzarmen kolektiboaren 10. artikulua aldatzeko erabakia erregistratzen eta argitaratzen duena. [2020-4996 xedapena - 3 orri.](#)
- Ebazpena, 2020ko martxoaren 10ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, elikadura pasten industriaren sektoreko hitzarmen kolektiboko 2019ko behin betiko soldata taulak erregistratzen eta argitaratzen dituen. [2020-5001 xedapena - 3 orri.](#)

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/05/14

- Ebazpena, 2020ko martxoaren 6koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, Kortxoaren estatuko VII. hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. [2020-5038 xedapena - 79 orri.](#)
- Ebazpena, 2020ko martxoaren 14koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, higiezin kudeaketa eta bitartekaritzaren estatuko VII. hitzarmen kolektiboa aldatzeko erabakia erregistratzen eta argitaratzen duena. [2020-5039 xedapena - 9 orri.](#)
- Ebazpena, 2020ko martxoaren 14koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, aparkaleku eta garajeen sektoreko esparru nazionalako hitzarmen kolektibo orokorraren 2020ko ordainsarien eguneratzea erregistratzen eta argitaratzen duena. [2020-5040 xedapena - 2 orri.](#)
- Ebazpena, 2020ko martxoaren 14koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, txatarraren VI. hitzarmen kolektibo orokorraren 2020rako ordainsarien taulak erregistratu eta argitaratzen dituen. [2020-5041 - xedapena - 6 orri.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/05/12

- **BARNE MINISTERIOA.- Alarma egoera. Mugak.-** INT/401/2020 Agindua, maiatzaren 11koa, aireko eta itsasoko barne mugetan aldi baterako kontrolak berrezartzen dituen, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoera dela-eta. [2020-4929 xedapena - 3 orri.](#)
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. Alarma egoera. Abiazio zibila.-** Ebazpena, 2020ko maiatzaren 5koa, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren Zuzendaritzarena, zeinaren bidez salbuespena ematen den, 2018/1139 (EB) Erregelamenduaren 71. artikulua ezarritakoaren arabera, baliozkotasuna eta beste aldi batzuk luzatzeko, pilotuen, instruktoreen, aztertzaileen eta TCPen lizentziei, gaikuntzei, eskuduntzei, oharrei eta ziurtagiriei dagokienez, COVID-19aren krisi globalak abiazio komertzialean eta orokorrean eragindako inpaktu negatiboa murrizteko. [2020-4930 xedapena - 6 orri.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA.**
 - **Alarma egoera. Osasun materiala.-** SND/402/2020 Agindua, maiatzaren 10ekoa, neurri bereziak ezartzen dituen azal osasuntsurako klorhexidina diglukonatoa duten antiseptikoak hornitzeko, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoeran. [2020-4931 xedapena - 2 orri.](#)
 - **Alarma egoera. Nazioarteko bidaiak.-** SND/403/2020 Agindua, maiatzaren 11koa, Espainiara beste herrialde batzuetatik etortzen diren pertsonen berrogeialdia igarotzeko baldintzei buruzkoa, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoeran. [2020-4932 xedapena - 3 orri.](#)
 - **Alarma egoera. Zaintza epidemiologikoa.-** SND/404/2020 Agindua, maiatzaren 11koa, SARS-CoV-2ren ondoriozko kutsatzeen zaintza epidemiologikoko neurriei buruzkoa, normaltasun berrirako trantsizio-fasean. [2020-4933 xedapena - 9 orri.](#)

2020/05/13

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.- Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** 18/2020 Errege Lege-dekretua, maiatzaren 12koa, enplegua babesteko neurri sozialei buruzkoa. [2020-4959 xedapena - 11 orri.](#)

- **BARNE MINISTERIOA.- Alarma egoera. Espetxe erakundeak.-** INT/407/2020 Agindua, maiatzaren 12koa, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren babesean, espetxe-erakundearen alorrean ezarritako murrizketak malgutzeko neurriak hartzen dituenak. [2020-4960 xedapena - 2 orri.](#)
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Aire nabigazioa.-** 515/2020 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, aire zirkulazioa eta aire nabigazioa kudeatzeko zerbitzuen eta eginkizunen hornitzaile zibilen ziurtatze-prozedura eta horren arau kontrola arautzen dituenak. [2020-4961 xedapena - 10 orri.](#)

2020/05/14

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.**
 - **Alarma egoera. Abiazio zibila.-** Ebazpena, 2020ko maiatzaren 8koa, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren Zuzendaritzarena, zeinaren bidez salbuespena ematen den, 2018/1139 (EB) Erregelamenduaren 71. artikulua ezarritakoaren arabera, linea egiaztapenen eta aireko garraio komertzialeko operadoreen kabinako baliabideak kudeatzeko aldizkako entrenamenduen balio-aldiak luzatzeko, COVID-19 koronabirusak eragindako krisi globalak sortutako egoerari dagokionez. [2020-5019 xedapena - 3 orri.](#)
 - **Neurri ekonomiko eta sozialak.-** 4/2020 Lege-dekretua, martxoaren 20koa, premiazko neurriak hartzen dituen kontratazioaren, hitzarmenen, hezkuntza hitzarmen eta dirulaguntzen, gizarte zerbitzuen, ingurumenaren, administrazio prozeduren eta aurrekontuen esparruetan, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko. [2020-5021 xedapena - 9 orri.](#)
 - **Zerga eta administrazio neurriak.-** 5/2020 Lege-dekretua, martxoaren 27koa, premiazko neurriak ezartzen dituen zerga eta administrazio alorrean, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko. [2020-5022 xedapena - 7 orri.](#)
- **KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA.- Administrazio epeak. Laguntzak.-** Ebazpena, 2020ko maiatzaren 8koa, Idazkariordetza, zeinaren bidez erabaki den kultura- eta sormen-industriak proiektu digital eta teknologikoen bidez modernizatzeko eta berritzeko 2020rako laguntzen deialdia izapidetzea, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen

martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. paragrafoa aplikatuz. [2020-5045 xedapena - 2 orri.](#)

2020/05/15

- **GORTE NAGUSIAK.**

- **Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** Ebazpena, 2020ko maiatzaren 13koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [2020-5051 xedapena - 1 orri.](#)
- **Alarma egoera. Justizia Administrazioa.-** Ebazpena, 2020ko maiatzaren 13koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila Justizia Administrazioaren alorrean COVID-19ari aurre egiteko prozesu eta antolakuntza neurriei buruzko apirilaren 28ko 16/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [2020-5052 xedapena - 1 orri.](#)
- **BARNE MINISTERIOA.- Alarma egoera. Mugak.-** INT/409/2020 Agindua, maiatzaren 14koa, hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen eremuko herrialde elkartuetara ezinbestekoak ez diren bidaien aldi baterako murrizketa aplikatzeko irizpideak luzatzen dituen, ordena publikoarekin eta osasun publikoarekin lotutako arrazoiengatik, eta COVID-19ak eragindako osasun krisia dela-eta. [2020-5053 xedapena - 3 orri.](#)
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Nazioarteko garraioa.-** TMA/410/2020 Agindua, maiatzaren 14koa, aireontziak eta bidaiari-ontziak Espainian sartzea mugatzen duena, nazioarteko garrantzia duten osasun publikoko larrialdiei erantzuteko gaitasuna duten sarrera puntuen bidez. [2020-5054 xedapena - 5 orri.](#)

2020/05/16 (E.A.O. 137)

- **OSASUN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Ibilgailuen Azterketa Teknikoa.-** SND/413/2020 Agindua, maiatzaren 15koa, neurri bereziak ezartzen dituen ibilgailuen azterketa teknikorako. [2020-5081 xedapena - 2 orri.](#)

2020/05/16 (E.A.O. 138)

- **OSASUN MINISTERIOA.- Alarma egoera.-** Premiazko neurriak SND/414/2020 Agindua, maiatzaren 16koa, alarma egoera deklaratu ondoren ezarritako estatu mailako zenbait murrizketa malgutzen dituen, normaltasun berri baterako trantsiziorako planaren 2. fasea aplikatuz. [2020-5088 xedapena - 33 orri.](#)

2020/05/17

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** TMA/415/2020 Agindua, maiatzaren 17koa, nazioartean garrantzia duten osasun publikoko larrialdiei erantzuteko gaitasuna duten sarrera-puntuaren zerrenda zabaltzen duena. [2020-5089 xedapena - 2 orri.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/05/12

- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.-HUTS-ZUZENKETA,** honako dekretu honena: 55/2020 Dekretua, apirilaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzko Dekretua bigarrenenez aldatzen duena. [2020-1975 xedapena - 1 orri.](#)
- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.-EBAZPENA,** 2020ko apirilaren 30ekoa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariarena, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 1/2020 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 24koa, Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituen. [2020-1958 xedapena - 1 orri.](#)
- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.-** 1/2020 FORU ARAUA, apirilaren 24koa, Europako zuzentarauen transposizioarekin lotutako zerga aldaketa batzuk ekarri eta beste zenbait aldaketa tekniko sartzen dituen. [2020-1959 xedapena - 43 orri.](#)

2020/05/16

- **XEDAPEN OROKORRAK.- LEHENDAKARITZA.-** 9/2020 DEKRETUA, maiatzaren 15ekoa, Lehendakariarena, honako dekretu hau aldatzeko dena: 8/2020 Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Lehendakariarena, zeinaren bidez arauak ezartzen baitira alarma-egoera deklaratu ondoren ezarritako murrizketak Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 1. fasean malgutzeko Espainiako Gobernuarekin adostutako aldaketak, zabaltzeak eta murrizketak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan aplikatzeko, osasun-larrialdiak Euskadin izan duen bilakaerara egokitze aldera. [2020-1983 xedapena - 2 orri.](#)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/05/13

- **BATZAR NAGUSIAK.- FORU ARAUAK.-** 5/2020 Foru Araua, maiatzaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren artean, Gasteizen bus elektriko adimenduna ezartzearen osagarri gisa, BEI/BEAren karga unitate funtzionalaren eraikuntza proiektua gauzatzeko izenpetutako hitzarmena berresteko.- [2020-1088 xedapena – 17 orri.](#)
- **ARABAKO FORU ALDUNDIA.- ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA.-** Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, maiatzaren 12koa. Onespena ematea COVID-19rekin lotutako zerga neurri berriak hartzeari.- [2020-1115 xedapena – 8 orri.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/05/13

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA.- EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA.-** Ekonomi Sustapeneko diputatuaren 2783/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 11n, zeinaren bidez erabakitzen baita Ekonomia Sustatzeko Sailaren eskumeneko eta Ekintzailetzako eta Enpresa Lehiakortasuna bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiak kudeatutako 2020rako diru-laguntza programa jakin batzuei lotutako administrazio prozedurekin jarraitzea. Horrek berekin dakar deialdiko diru-laguntza programetarako eskabideak aurkezteko epeak amaitzeko datak finkatzea. [2020-89 \(I-314\) xedapena – 3 orri.](#)

2020/05/14

- **ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren 29/2020 FORU DEKRETUA, maiatzaren 12koa, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 2ko 34/2019 Foru Dekretua, langabezian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen artean autoenplegua eta enpresak sortzea sustatzeko dirulaguntzen 2019ko ekitaldiko oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta dirulaguntzak emateko deialdiak egiten dituen, COVID-19a dela-eta hartutako neurriek sortutako egoerara egokitzeko. [2020-090 \(I-304\) xedapena – 3 orri.](#)

2020/05/15

- **ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA**

- Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2020 FORU DEKRETUA, maiatzaren 12koa, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren 18/2020 Foru Dekretua, otsailaren 18koa, COVID-19a dela-eta hartu diren neurriek sortutako egoerari aurre egiteko, langabezian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko 2020ko ekitaldiko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta deialdia onesten duena. [2020-091 – \(I-315\) xedapena – 5 orri.](#)
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 32/2020 FORU DEKRETUA, maiatzaren 12koa, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 2ko 34/2019 Foru Dekretua, langabezian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen artean autoenplegua eta enpresak sortzea sustatzeko dirulaguntzen 2019ko ekitaldiko oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta dirulaguntzak emateko deialdiak egiten dituen, COVID-19a dela-eta hartutako neurriek sortutako egoerara egokitzeko (oker zuzenketa). [2020-091 \(I-315\) xedapena - 3 orri.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/05/14

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

- 3/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, Udalak Finantzatzeko Foru Funtzagarik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen. [2020-2129 xedapena – 3 orri.](#)
- 4/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, COVID-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz aurrekontu arloko neurri jakin batzuk onartzen dituen. [2020-2131 xedapena – 3 orri.](#)

2020/05/15

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA.-** 0167 LI/2020 Foru Agindua, apirilaren 24koa, Laborategi, Kalitate eta Nekazaritza Berrikuntzako Zerbitzuko zerbitzuen karta onesten duena. [2020-2110 xedapena – 10 orri.](#)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/05/14

- Batzordearen 2020/648 (EB) Gomendioa, 2020ko maiatzaren 13koa, bidaztiei eta bidaiaiei bertan behera utzitako bidaia konbinatuen eta garraio zerbitzuen dirua itzuli ordeztatuak eskaintzeari dagokionez, COVID-19aren pandemiaren testuinguruan. [L 151-10](#)

2020/05/15

- 2020/C 169/01 Batzordearen Komunikazioa. EBren orientabideak zerbitzu turistikoak pixkanaka berrabiatzeko eta ostalaritza establezimenduetarako osasun protokoloak — COVID-19.- [C 169/1](#)
- 2020/C 169/02 Batzordearen Komunikazioa. Garraio-zerbitzuak eta konektibitatea pixkanaka berrezartzeari buruzko jarraibideak — COVID-19.- [C 169/02](#)
- 2020/C 169/03 Batzordearen Komunikazioa. Zirkulaziorako askatasuna berrezartzeko eta barne-mugetako kontrolak kentzeko ikuspegi mailakatu eta koordinatu baten alde — COVID-19.- [C 169/03](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO